

Laudio Udala

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko maiatzaren 19an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen Laudion erroldatutako biztanleek 2016/2017 ikasturtean, 2016ko urriaren 3tik 2017ko ekainaren 30era egindako euskarazko ikasketak diruz laguntzeko deialdia.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Onuradunak.

Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, oinarri arautzaileetan azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte.

Bigarrena. Helburua.

Laudio Udalak Euskara Arloaren bitartez euskara ikasteko norgehiagokako araubidean ematen dituen diru-laguntzen esleipena arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko ematen dira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2017ko maiatzaren 19an. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2017ko maiatzaren 29an.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Hauek dira:

2016/2017 ikasturteko eskaeretakako, 60.000 euro.

Bestetik, balizko erreklamazioei aurre egiteko 500 euroko kopurua erreserbatuko da, laguntza multzo bakoitzari dagokion diru atala ahituko balitz, baliagarri izateko.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

2017ko urtarrilaren 2tik uztailaren 17ra arte, 2016ko urriaren 3tik 2017ko ekainaren 30era bitartean egindako ikastaroetarako.

Laudio, 2017ko maiatzaren 19a.

Alkate-udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.